## ARAMAIO

**772**

**Behin betiko onartzea lurzoru urbanizaezineko urbanizazioa eta eraikuntzak arautzen dituen udal ordenantza.**

Udalbatzak, 2013ko uztailaren 29ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea lurzoru urbanizaezineko urbanizazioa eta eraikuntzak arautzen dituen udal ordenantzari.

Aipatutako ordenantza jendaurrean egon den bitartean, haren aurkako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartutzat jotzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluko azken paragrafoan ezarritakoa betez.

Ordenantza honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazio auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki eta helburu horretarako, aipatutako ordenantzaren testua osorik argitaratzen da.

Aramaio, 2014ko otsailaren 10a.– Alkatea, RAMON AJURIA URANGA.

### LURZORU URBANIZAEZINEKO URBANIZAZIOA ETA ERAIKUNTZAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Hiri antolamendurako plan orokorra behin betiko onartu eta gero, lurzoru urbanizaezineko zenbait hirigintza parametrotan hutsak daudela edo zehaztasun nahikorik ez dagoela antzeman da:

– Plan orokorrak lurzoru urbanizaezinean dauden lurzatien itxiturak arautzen dituen zatian ez da aipatzen itxitura horiek zein materialekin egin, ezta eraikuntza osaera zein izan behar den ere.

– Halaber, ez dago inolako parametrorik ezarrita finketako itxituren eta bide publikoen artean utzi beharreko gutxieneko tartearen gainean; Aramaioko planeamenduko aurreko arau subsidiarioetan, aldiz, finketako itxituren eta bide publikoen artean utzi beharreko gutxieneko tartea 1,5 metrokoa izan behar zela ezarrita zegoen, baina ez zegoen zehaztuta erreserba espazio horren erabilera edo helburua.

– Beste alde batetik, profesionalizatu gabeko nekazaritza jardueretarako erabiltzen diren txabola eta estalpeak eraikitzearen inguruan araututa dagoenak aukera ematen du sabai eraikigarriari dagokionez 25 $m^2$-rainoko azalera duten eraikinak egiteko. Halako estalpeak eraiki ahal izateko baldintzak dira, alde batetik, lurzati hartzaileak gutxienez 2.000 $m^2$-ko azalera edukitzea eta, bestetik, horretarako baimenduta dagoen zona batean egotea lurzati hori.

– Azken urteetan halako estalpeak eraikitzeko obra baimenak ugaritu dira, eta estalpe horietako asko, nekazaritza jardueretarako laguntza izan beharrean, txoko gisa edo asteburuak igarotzeko eraikin gisa erabiltzen ari dira. Horren arrazoia izan da, hein handi batean, araudian baimenduta egotea 25 $m^2$-ko azalera, neurri horri esker etxetxo bat lasai asko molda baitaiteke. Orobat, eraikin horietako askotan etxebizitzen berezko instalazioak egin dituztela egiaztatu da, esate baterako, ur hornidura, argindarra, saneamendua, eta inoiz erregai andela ere bai.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da lurzatietako itxituren materialak eta eraikuntza ezaugarriak arautzea, udal ordenantza baten bidez, plan orokorrean jasotako honako udal araudi hau osatze aldera:

1. Eraikuntza erabilerak hartzen dituzten finkak 1.5.1.30. artikuluan (Hesiak) ezarritako baldintzetan hesitu ahal izango dira.

Eraikuntza erabilerak hartzen ez dituzten finken itxiturak burdin hari leunez edo sare elektrifikatu gabez egingo dira, metro eta erdiko altuera izango dute eta ez dute eragotziko animaliak joan eta etortzea. Saretak eta igarobide iragazkorrak jarriko dira. Horretarako, sareak

## ARAMAIO

**772**

**Aprobación definitiva de la ordenanza municipal reguladora de la urbanización y las construcciones en suelo no urbanizable.**

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 29 de julio de 2013, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza municipal reguladora de la urbanización y las construcciones en suelo no urbanizable.

Habida cuenta que durante el período de exposición pública de la citada Ordenanza no ha sido presentada ninguna reclamación ni sugerencia, en virtud de lo establecido en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se entiende definitivamente aprobada la Ordenanza.

Contra la presente Ordenanza, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud, y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70,2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

En Aramaio, a 10 de febrero de 2014.– El alcalde, RAMON AJURIA URANGA.

### ORDENANZA MUNICIPAL DE LA URBANIZACIÓN Y LAS CONSTRUCCIONES EN SUELO NO URBANIZABLE

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Una vez aprobado definitivamente el Plan General de Ordenación Urbana, se han detectado omisiones, o falta de concreción de algunos parámetros urbanísticos, en suelo no urbanizable:

– La regularización que en el mismo se realiza en relación a los cierres de parcelas en suelo no urbanizable no hace referencia a los materiales y a la composición constructiva del mismo.

– Tampoco establece ningún parámetro relativo al retiro o separación mínima de cierres de fincas con respecto de viales públicos, al contrario que las anteriores Normas Subsidiarias de Planeamiento de Aramaio, que establecían una separación mínima de cierres de fincas con respecto de viales públicos de 1,5 metros, sin concretar el uso o destino de este espacio de reserva.

– Por otra parte, la regularización que se realiza, en relación a la construcción de chabolas y cobertizos destinados a actividades agrarias no profesionalizadas posibilita la ejecución de edificaciones de superficie de techo edificable de hasta 25 $m^2$. La condición para poder construir este tipo de cobertizos es que la parcela receptora disponga de una superficie mínima de 2.000 $m^2$ y esté ubicada en la zona reconocida para ello.

– En los últimos años se ha visto la proliferación de solicitudes de obra para la construcción de este tipo de cobertizos, muchos de los cuales, lejos de servir de apoyo a las labores agrícolas, están siendo utilizados como txokos o como edificaciones de fin de semana. Esto ha ocurrido, en gran medida, debido a la superficie de 25 $m^2$ que posibilita la normativa, ya con esa superficie se puede acomodar tranquilamente una pequeña casita. Así mismo, en muchas de las edificaciones se ha podido observar que se han ejecutado instalaciones propias de viviendas, como suministro de agua, electricidad, saneamiento, y en algunos casos hasta depósito de combustible.

Por todo ello se hace necesaria una regulación mediante ordenanza municipal de los materiales y características constructivas que los cierres de parcelas deben de conservar, que complete la normativa municipal recogida en el Plan General, que es la siguiente:

1. Las fincas receptoras de usos constructivos podrán cercarse en las condiciones establecidas en el artículo 1.5.1.30. "Vallados".

Los cerramientos de fincas que no alberguen usos constructivos serán de alambre liso o malla no electrificada de 1,50 metros de altura, que no impida la circulación de la fauna en ambos sentidos, incorporando retículos y pasos permeables. Para ello el área mínima

osatzen dituzten sareten gutxieneko area 300 $cm^2$-koa izango da, eta haien aldeen gutxieneko neurria, 10 cm-koa (10x30 cm). Sarearen beheko ertzetik 60 cm-ra dagoen lerroan, saretek 600 $cm^2$-ko argia izango dute gutxienez, eta haien aldeen gutxieneko neurria 20 cm-koa (20x30 cm) izango da.

**1.5.1.30. artikulua. Hesiak:**

1. Hiri lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko lurzatiak berrehun (200) zentimetroko altuerako hesiekin edo hormekin itxi ahalko dira; nolanahi ere, eraikuntza bakanen azpizonetan, bide edo espazio publikoetara ematen duten lurzatiak era honetara itxiko dira:

a) Gehienez laurogei (80) zentimetroko altuera duten elementu itsuekin. Beharrezkoa izanez gero, horiek osatzeko, estetikoki lekuarekin bat datozen babes gardenak, landare pantailak edo antzeko irtenbideak erabiliko dira, gehienez ere berrehun (200) zentimetroko altueraraino.

Bestela, tokiko estetikarekin bat egiten duten itxiturak erabili ahalko dira, betiere, hogei (20) metrotik gorako aurrealde opaku jarraiturik eratzen ez bada, ezta bi (2) metroko altuera gainditzen ere.

b) Ez da inolaz ere baimenduko pertsonei edo animaliei lesioak sor diezazkieketen elementuen bidez ixtea itxiturak, ezta herriaren itxura kaltetzen dutenen bidez ere.

c) Aurreko baldintzak betetzetik salbuetsita daude, zertarako erabiliko diren kontuan hartuta, segurtasun neurri bereziak behar dituzten lurzatiak. Horrelakoetan, itxitura berezko beharrei egokituko zaie.

Halaber, beharrezkoa da udal ordenantza baten bidez ezartzea finken eta lurzatien itxituretatik bide eta espazio publikoetaraino utzi beharreko gutxieneko distantzia. Era berean, nahitaezkoa da arautzea erreserba espazio horren helburua, erabilera eta okupazioa, aipatutako lurzoruaren jabeek hainbat xedetarako okupatu izan dutelako tarte hori orain arte.

Bukatzeko, beharrezkoa da osatzea profesionalizatu gabeko nekazaritza jardueretarako erabiltzen diren txabola eta estalpeen araudia, horien azalera eraikia murrizte aldera.

**I. KAPITULUA**

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- XEDEA.

Ordenantza honen xedea da osatzea hiri antolamendurako plan orokorreko hirigintza antolamendua, lurzoru urbanizaezinean, honako hauek arautuz:

1.- Eraikuntza erabilerak hartzen dituzten finketako itxituren eta hesien, hots, eraikinak eta haien lursailak inguratzen dituztenen, diseinua eta eraikuntza ezaugarriak.

2.- Finka zein lurzatietako itxituren eta bide zein espazio publikoen arteko gutxieneko distantzia, bai eta tarte horren helburua, erabilera eta okupazioa ere.

3.- Profesionalizatu gabeko nekazaritza jardueretarako diren estalpeen azalera eraikia.

2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO EREMUA.

Ordenantza honen nahitaezko aplikazio eremuaren barruan sartzen dira Aramaioko udalerrian lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lursailak, bai eraikuntza erabilerak hartzen dituzten finkak, bai hirigintza erabilerak hartzen dituzten finkak, bide publikoaren eta eraikinik ez duten finken mugakide direnak, bai eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako finkak eta lurzatiak, udal errepide eta bideen mugakide direnak.

**II. KAPITULUA**

3. ARTIKULUA.- LURZORU URBANIZAEZINEAN ERAIKUNTZA ERABILERAK HARTZEN DITUZTEN FINKETAKO ITXITURAK.

1.- Itxiturek izan beharreko eraikuntza ezaugarri formalak.

Finketako itxitura guztiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

– Gehienez 0,80 metroko altuera duten elementu itsuak: ageriko harlangaitzezko hormak, harrizkoak, harrizko plakez egindakoak edo zarpiatuz egindakoak, tonu zuriez edo grisez margotuta.

de los retículos de la mallas será de 300 $cm^2$, con una dimensión mínima para sus lados de 10 cm (10x30 cm), y en la hilera situada a 60 cm del borde inferior de la malla, los retículos tendrán al menos una luz de 600 $cm^2$, con una dimensión mínima para sus lados de 20 cm (20x30 cm).

**Artículo 1.5.1.30. Vallados:**

1. Las parcelas del suelo urbano y urbanizable podrán cerrarse con vallas o muros de doscientos (200) centímetros de altura, salvo en subzonas de edificación aislada en las que el cerramiento de parcelas a vías o espacios públicos se resolverá:

a) Con elementos ciegos de ochenta (80) centímetros de altura máxima, completados, en su caso, mediante protecciones diáfanas estéticamente acordes con el lugar, pantallas vegetales o soluciones similares hasta una altura máxima de doscientos (200) centímetros.

O por medio de cerramientos de estética acorde con el lugar, que no formen frentes opacos continuos de longitud superior a veinte (20) metros ni rebasen una altura de dos (2) metros.

b) En ningún caso se permitirá el remate de cerramientos con elementos que puedan causar lesiones a personas y animales, ni los que lesionen la imagen urbana.

c) Se exceptúan de las condiciones anteriores aquellas parcelas que, en razón de su destino, requieran especiales medidas de seguridad, en cuyo caso, el cerramiento se ajustará sus propias necesidades.

También, se considera necesario establecer mediante Ordenanza municipal una distancia mínima de separación que tienen que mantener los cierres de las fincas y parcelas con respecto de viales y espacios públicos. Así como regular el destino, uso y ocupación de este espacio de reserva, ya que existen antecedentes de ocupación con diferentes finalidades de este espacio por parte de los propietarios del suelo en cuestión.

Por último, se hace necesario completar la regulación de chabolas y cobertizos destinados a actividades agrarias no profesionalizadas, con objeto de restringir la superficie construida de los mismos.

**CAPÍTULO I**

DISPOSICIONES GENERALES

ARTÍCULO 1.- OBJETO.

El objeto de la presente Ordenanza es completar la ordenación urbanística, del Plan General de Ordenación Urbana, en suelo no urbanizable, regulando:

1.- El diseño y características constructivas de los cierres y vallados de las fincas receptoras de usos constructivos, que en su caso rodean las edificaciones y sus terrenos.

2.- La distancia mínima de separación de los cierres de fincas y parcelas con respecto de viales y espacios públicos, así como el destino, el uso y la ocupación que del mismo se puede realizar.

3.- La superficie construida de cobertizos destinados a actividades agrarias no profesionalizadas.

ARTÍCULO 2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN.

Se establece como ámbito de aplicación obligatoria de esta Ordenanza los terrenos del término municipal de Aramaio, clasificados como Suelo No Urbanizable, tanto las fincas receptoras de usos constructivos, como las fincas receptoras de usos urbanísticos que delimiten con vial público, y con fincas que no alberguen edificaciones, así como las fincas y parcelas clasificadas como suelo no urbanizable, que estén en colindancia con carreteras y caminos municipales.

**CAPÍTULO II**

ARTÍCULO 3.- CIERRES DE FINCAS RECEPTORAS DE USOS CONSTRUCTIVOS EN SUELO NO URBANIZABLE.

1.- Características constructivas formales de los cierres.

Todos los cierres de fincas se ejecutaran con las siguientes características:

– Elementos ciegos de 0,80 metros de altura máxima basados en muros de mampostería vista, piedra, aplacado de piedra o enfoscado pintado en tonos blancos o gamas beis.

– Gehienez 2 metroko altueraraino heltzeko elementuak, eta mota hauetako itxiturak erabilita: sare elektrosoldatu eta galbanizatuzko panelak, metalezko burdin hesia edo zurezko burdin hesia. Zurez egindako itxiturak ezin du sortu elementu itsurik. Itxitura, barrualdean, material hauetaz estalita egon ahal da: heskaiz edo txilarrez, edo landare pantailaz edo landareak imitatzen dituzten beste elementuez osaturiko pantailaz. Debekatuta dago landarez edo landareak imitatzen dituzten beste elementuez eginda ez dauden elementu itsuak sortzea.

– Salbuespen gisa eta behar bezala egiaztatutako herri intereseko arrazoiak direla eta, herri interesa betetzeko neurri egokiak dituzten itxiturak egiteko baimena eman ahal izango da.

2.- Altuerak

Itxituraren altuera neurtzeko, erreferentziatzat hartuko da beti kanpoko sestraren kota, kanpoalde eta barrualdearen artean dagoen kota aldea alde batera utzita. Itxitura bi lurzatien artean badago, itxituraren altuera neurtzeko, goiko kotan kokatutako lursailaren sestratik abiatu behar da.

**III. KAPITULUA**

4. ARTIKULUA.- FINKA ZEIN LURZATIETAKO ITXITUREN ETA BIDE ZEIN ESPAZIO PUBLIKOEN ARTEKO DISTANTZIA, ETA ERRESERBA ESPAZIO HORREN HELBURUA, ERABILERA ETA OKUPAZIOA.

1.- Itxituretan utzi beharreko gutxieneko distantzia

Finka eta lurzatietako itxitura guztiak egiterakoan, gutxienez 1,5 metroko distantzia utziko da mugakide duen bide publikoaren edo espazio publikoaren kanpoko lerroraino, salbuespen honekin: foru errepideen mugakide diren lurzatien kasuan, Arabako errepideei buruzko Foru Arauan ezarritakoa bete beharko da.

Landarez egindako itxiturek 1,5 metroko benetako distantzia errespetatu beharko dute mugakide duten bide publikoaren edo espazio publikoaren kanpoko lerrotik, eta jabea behartuta dago gutxienez distantzia horri benetan eusten une oro.

2.- Erreserba espazioaren helburua, erabilera eta okupazioa

Itxituretan utzi beharreko tartearen ondorioz sorturiko espazioa zerbitzu azpiegituretako elementuetarako erabiliko da bakar-bakarrik, bai eta errepideetako berezko elementuetarako ere.

Espazio hori oztoporik gabeko lekua izango da, eta edonola ere ezin izango du okupatu oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorria oztopatuko duen beste edozein elementuk, ez bada aurreko paragrafoan adierazitakoren bat.

Hala ere, salbuespen gisa eta behar bezala egiaztatutako herri intereseko arrazoiak direla eta, bestelako elementuak jartzeko baimena eman liteke.

Udalak erreserba espazioan sastraka kentzeko eskubidea du.

**IV. KAPITULUA**

5. ARTIKULUA.- PROFESIONALIZATU GABEKO NEKAZARITZA JARDUERETARAKO ERABILTZEN DIREN TXABOLA ETA ESTALPEAK ERAIKITZEA.

1.- Estalpe motak

Bi estalpe mota daude:

1. Nekazaritza jardueraren bat egiteko estalpea, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategien erregistroan inskribatuta dagoena.

2. Nekazaritza jardueraren bat egiteko estalpea, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategien erregistroan inskribatuta ez dagoena.

2.- Estalpeetako sabai eraikigarriaren azalerak

Estalpea zein jarduera motari lotzen zaion kontuan hartuko da, estalpeetako gehieneko azalera eraikiak zehazterako orduan:

1. Nekazaritza jardueraren bat egiteko estalpearen, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategien erregistroan inskribatuta dagoenaren, kasuan, sabai eraikigarria 25 $m^2$-koa izango da.

2. Nekazaritza jardueraren bat egiteko estalpearen, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategien erregistroan inskribatuta ez dagoenaren, kasuan, sabai eraikigarria 5 $m^2$-koa izango da.

– Elementos hasta completar la altura máxima de 2 metros, con cierres tipo paneles de malla electro soldado y galvanizado, enrejado metálico o a base de enrejado de madera. El cerramiento de madera no podrá crear un elemento ciego. El cierre podrá ir trasdosado por el interior con seto vivo o con brezo, o con pantalla vegetal o imitación a vegetal. Se prohíbe la creación de elementos ciegos que no sean vegetales o imitación a vegetal.

– Por razones de interés público debidamente acreditadas y excepcionalmente, podrán autorizarse cierres de dimensiones adecuadas para la consecución del interés público.

2.- Alturas

La altura del cierre se medirá siempre tomando como referencia la cota de rasante exterior, independientemente de la diferencia de cota que exista entre el exterior y el interior. En el caso en el que el cierre este situado entre dos parcelas, la altura del cierre se medirá a partir de la rasante del terreno situado en la cota superior.

**CAPÍTULO III**

ARTÍCULO 4.- DISTANCIA DE SEPARACIÓN, DESTINO, USO Y OCUPACIÓN DEL ESPACIO DE RESERVA RESULTANTE DEL RETIRO DE LOS CIERRES DE FINCAS Y PARCELAS CON RESPECTO DE VIALES Y ESPACIOS PÚBLICOS.

1.- Distancia mínima de separación de cierres

Todos los cierres de fincas y parcelas se ejecutaran manteniendo un mínimo de 1,5 metros de distancia de separación respecto de la línea exterior del vial público o del espacio público con el que se encuentre en colindancia, con la salvedad de las parcelas que sean colindantes con carreteras Forales, donde regirá lo establecido en la Norma Foral de Carreteras de Álava.

Los cierres vegetales deberán respetar la distancia efectiva de 1,5 metros desde la línea exterior del vial público o del espacio público con el que se encuentre en colindancia, y el propietario estará obligado al mantenimiento efectivo de esa distancia como mínimo en todo momento.

2.- Destino, uso y ocupación del espacio de reserva

El espacio resultante de la separación del cierre se destinará exclusivamente a albergar elementos correspondientes a infraestructuras de servicios, así como elementos propios de las carreteras.

Este espacio deberá quedar libre de obstáculos, y en ningún caso podrá ser ocupado por cualquier otro elemento que obstaculice el tránsito de peatones o vehículos, y no sea el recogido en el párrafo anterior.

No obstante, por razones de interés público debidamente justificadas y excepcionalmente, podrá autorizarse la colocación de otros elementos.

El Ayuntamiento se reserva el derecho para desbrozar el espacio de reserva.

**CAPÍTULO IV**

ARTÍCULO 5.- CONSTRUCCIÓN DE CHABOLAS Y COBERTIZOS DESTINADOS A ACTIVIDADES AGRARIAS NO PROFESIONALIZADAS.

1.- Tipos de cobertizos

Se distinguen dos tipos de cobertizos:

1. Cobertizo destinado a actividad agraria con inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Álava.

2. Cobertizo destinado a actividad agraria sin inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Álava.

2.- Superficies de techo edificable de los cobertizos

De acuerdo al tipo de actividad al que esté vinculado el cobertizo, las superficies máximas construidas de los cobertizos son las siguientes:

1. Cobertizo destinado a actividad agraria con inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Álava, 25 $m^2$ de techo edificable.

2. Cobertizo destinado a actividad agraria sin inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Álava, 5 $m^2$ de techo edificable.

3.- Estalpeek izan beharreko eraikuntza ezaugarriak.

Estalpe mota batean zein bestean udal araudian ezarritako eraikuntza ezaugarriak bete behar dira.

4.- Estalpeetako obra mota eta izaera

1. Nekazaritza jardueraren bat egiteko estalpea, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategien erregistroan inskribatuta dagoena, eta sabai eraikigarria gehienez 25 $m^2$-koa duena: obra handia eta proiektu teknikoa aurkeztu beharra, teknikari eskudun batek sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita.

2. Nekazaritza jardueraren bat egiteko estalpea, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategien erregistroan inskribatuta ez dagoena, eta sabai eraikigarria gehienez 5 $m^2$-koa duena: obra txikia. Obra baimena eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, kasu berezi bakoitzak izan ditzakeen berezitasunak alde batera utzi gabe:

– Estalpearen kokapen planoa, zeinetan adieraziko diren mugakideetaraino eta bide edo errepideetaraino dauden distantziak.

– Estalpearen krokisa, zeinetan adierazita egongo diren oinplanoko neurriak eta teilatu hegalaren eta gailurraren gehieneko altuerak.

– Obraren aurrekontu osoa.

**V. KAPITULUA**

6. ARTIKULUA.- ZEHAPEN ARAUBIDEA.

Ordenantza honetan jasotakoa ez betetzeak berekin ekarriko du zehapenak ezartzea, 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, VI. tituluko V. kapituluan ezarritakoaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau onartzen denean izapidetzen egon daitezkeen proiektuek bete egin beharko dute eskaera aurkezterakoan indarrean zegoen araudia.

LEHENENGO AZKEN XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA

Ordenantza hau indarrean jarriko da behin betiko onartutakoan eta testu osoa ALHAOn argitaratutakoan, betiere toki araubideari buruzko araudian ezarritako epeetan. “

3.- Características constructivas de los cobertizos

Se mantienen para los dos tipos de cobertizos las características constructivas establecidas en la normativa municipal.

4.- Carácter y tipo de obra de los cobertizos

1. Cobertizo destinado a actividad agraria con inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Álava de 25 $m^2$ de techo edificable máximo: obra mayor y necesidad de presentación de Proyecto técnico firmado por técnico competente y visado en el colegio correspondiente.

2. Cobertizo destinado a actividad agraria sin inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Álava, 5 $m^2$ de techo edificable: obra menor. La documentación necesaria a presentar para la solicitud de licencia de obras, sin perjuicio de las particularidades del caso concreto, es la siguiente:

– Plano de ubicación del cobertizo en el que se señalará las distancias a linderos y a caminos o carreteras.

– Croquis del cobertizo señalando dimensiones en planta y alturas máximas, de alero y cumbrera.

– Presupuesto completo de la obra.

**CAPÍTULO V**

ARTÍCULO 6.- RÉGIMEN SANCIONADOR.

La infracción de los preceptos contenidos en esta Ordenanza acarreará la imposición de sanciones de conformidad con el capítulo V del título VI de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

DISPOSICION TRANSITORIA

Los proyectos que estuvieran en tramitación en el momento de la aprobación de esta Ordenanza se ajustarán a la normativa vigente en el momento de la presentación de la solicitud.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA. ENTRADA EN VIGOR

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y publicado su texto integro en el BOTHA, en los plazos establecidos por la normativa sobre régimen local. “

## ASPARRENA

**813**

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2014ko ordainketa.**

2014ko martxoaren 1etik martxoaren 31ra arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2014ko ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar dutenek bulego orduetan egin ahal izango dute ordainketa, udaleko diruzaintzan, aipatutako epe horretan. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Euskadiko Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean. Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa. Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, helbideratzeko kontua mantentzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Aipatutako epea amaitzean, automatikoki abiatuko da betearazte aldia, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako Zergei buruzkoaren, xedapenen arabera, eta dagozkion errekargu eta berandutze korrituak kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2014ko otsailaren 17a.– Alkatea, DIEGO GASTAÑARES ZABALETA.

## ASPARRENA

**813**

**Cobro del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica ejercicio 2014.**

Durante los días hábiles comprendidos entre el 1 de marzo y el 31 de marzo de 2014 ambos inclusive, estarán puestos al cobro, en periodo voluntario, los recibos correspondientes al Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del año 2014.

Los contribuyentes afectados por dicho Impuesto podrán realizar los pagos de sus deudas tributarias en la Depositaría municipal, en horas de oficinas, durante dicho plazo. Igualmente lo podrán hacer efectivo en cualquiera de las cuentas que dispone este Ayuntamiento en las entidades bancarias de Kutxabank, Caja Laboral y Caixa. Asimismo se recuerda que los contribuyentes podrán hacer uso de la domiciliación del pago a través de entidades bancarias o cajas de ahorro. Los que tuvieran domiciliado el pago en años anteriores no tendrán que hacer ninguna gestión si mantienen la cuenta domiciliaria bancaria, encargándose el ayuntamiento de tramitar el pago.

Transcurrido el plazo indicado se iniciará automáticamente el periodo ejecutivo, de conformidad con las disposiciones establecidas en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, procediéndose al cobro de los recargos e intereses de demora que correspondan.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Araia, 17 de febrero de 2014.– El alcalde, DIEGO GASTAÑARES ZABALETA.